



## **PRENTSA-OHARRA**



### **DANTZERTI DANTZA ESKOLAK *SHOW* DANTZAIKUSKIZUNA AZKUNA ZENTROAN TAULARATUKO DU**

- **Arte Dramatiko eta Dantzako goi mailako eskolak Gradu Amaierako Muntaia aurkeztuko du; Ziomara Hormaetxe koreografoak zuzenduta, eta Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao-ren elkarlanarekin**
- ***Show* interpretatzen duten lau ikasleen bizipenetik abiatzen da, eta sare sozialetan ematen den intimitatearen galeraz dihardu**
- **Emanaldiak martxoaren 13an eta 14an izango dira, Azkuna Zentroko Auditorioan, 19:00etan**

Bilbon, 2024ko martxoaren 13an.- **Dantzertiko 4.º mailako dantza ikasleek *Show* ikuskizuna estreinatuko dute Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon;** Ziomara Hormaetxe dantzari gernikarrak zuzendu eta koreografiatutako lana da. Dantzertirekin egindako lankidetzeta hau Azkuna Zentroaren ildo estrategikoaren zati da, sorkuntzari laguntzeko.



Dantza ikuskizuna lau urteko Dantza Gradu ikasketa artistikoen gailurra da. **Sare sozialetan ematen den intimitatearen galeraz dihardu eta bititza 'show' bihurtzen den uneari buruzko hausnarketa poetikoan datza.** Norberaren barne-unibertsora iristeko ezintasuna planteatzen du, non benekotasun eza zein frustazioa uztartzen diren. Horrez gain, elkar topatzeko bidea bestelakoa dela iradokitzen du.

**Lana lau ikasle-dantzariren bizipenetatik eratorrita dago** eta lau hilabeteko lanaren emaitza izan da. Eneritz Zeberio iraskaslea tutoretzaz arduratu da, eta gainera, Sabino Alkorta, Ainhoa Areitio, Martin Barandiaran, Izaskun Lapaza, Juanjo Herrero eta Carmen San Esteban irakasleek ere parte hartu dute. Soinu espazioa Miguel Marin Pavonen sorkuntza da eta ikus-entzunezkoak, zeinak lan nabarmena jokatzen duten lan honetan, Gramaje estudioak ekoitzi ditu.

2023-2024 ikasturtean dantza muntaia zuzentzera gonbidatua izan den koreografoa **Ziomara Homaetxe** izan da. Dantzari gernikarraren ibilbidean teknologia berrietatik abiatutako sorkuntza artistikoa nabarmentzen da. Gainera, **Hormaetxe Azkuna Zentroak ekoiztako dantza eta teknologiako piezaren ekoizpen berrian ari da lanean, ACute.Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology** proiektu europarraren esparruan.

*Alma* izenburupean, mugimenduan dagoen pieza performatibo bat da, non presentzia teknologikoa osagai garrantzitsua den, ez bakarrik atrezzo gisa, baizik eta obran artistarekin eta publikoarekin modu esanguratsu eta berritzailean elkarreragiten duen elementu gisa. Ekoizpena diziplina anitzeko talde batekin elkarlanean egiten da, storytelling, teknologia emergenteak eta koreografia bezalako arloetan. Lan-metodo berritzaile berriak ezartzeak ekoizpena eboluzionatuko duten sorkuntza-aukerak sortzea erraztuko du.

*Show* ikusteko sarrerak doakoak dira eta Azkuna Zentroaren webgunean eskuragarri daude. AZinfo-n ere jaso ahal izango dira, emanaldiaren egunean bertan.



EUSKADIKO ARTE DRAMATIKO  
ETA DANTZA GOI MAILAKO  
ESKOLA · ESCUELA SUPERIOR  
DE ARTE DRAMÁTICO Y  
DANZA DE EUSKADI



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## **Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak**

Maidar Olano  
[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)  
Tels. +34 648 773 373